



3. AKTA

EZOHIKO UDALBATZA URGENTEA, 2006ko otsailaren 21ean izandakoa.

NON: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta seiko otsailaren hogeita batean.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Lucía Querido Noceti a.

Rafaela Romero Pozo a. eta

Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

José Luis Goikoetxea Garmendia j.

José Manuel Anso Martínez j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j. eta

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a.

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j. eta

José Luis Mtez. de Espronceda Luiña

EB-tik

Jesús M^a García Garde j. eta

Fco. Javier Pombo González j.

Ezohiko bilkura urgentea egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Marivi Roteta Mujika EAko zinegotzi andreak ezin etorria justifikatu du gaixorik dagoelako, halaber Aitor Larrañaga Burguera EAko zinegotzi jaunak



ezin etorria justifikatu du lan konpromiso bat ezin izan duelako atzeratu, deialdia presazkoa zenez. Juan Ramon Gonzalez Medrano atxiki gabeko zinegotziak ez du ezin etorria justifikatu. Halaber, bilkura honetan izan da behin-behineko kontuhartzaile Karmele Lizaso Ubera andrea.

Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 10:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Ezohiko Udalbatza urgentearen deialdia berrestea.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.b) artikulua agintzen duenez, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunaz, berretsi egin du deialdia urgentea dela.

2.- Gas Pasaia, S.A. enpresaren akzioak besterentzeari buruz Udalbatzak 2005eko abenduaren 23an hartutako erabakiaren kontra jarritako berraztertze-errekurtsoaren ebazpena.

Ricardo del Pozo eta Xabier Portugal jaunek berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dute, Pasaiako Udalak Gas Pasaia, S.A. sozietatean dituen akzioak besterentzea onartzeko Udalbatzak 2005eko abenduaren 23an hartutako akordioaren kontra, eta akordioa kautelaz bertan behera uztea ere eskatu dute, haien ustez udalerriaren interes orokorren kontrakoa delako eta erabat deusez.

Bertaratu diren zinegotzi gehienek —era berean korporazio kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa osatzen dutenek— adostu dutenez, eta Eledunen Batzordeak 2006ko otsailaren 20an egindako proposamena kontuan hartuta, Udalbatzak ondokoa

ERABAKI DU

Ezestea Ricardo del Pozo eta Xabier Portugal jaunek Pasaiako Udalak Gas Pasaia, S.A. sozietatean dituen akzioak besterentzea onartzeko Udalbatzak 2005eko abenduaren 13an hartutako akordioaren kontra jarritako berraztertze-errekurtsoa, bai eta akordio hori kautelaz bertan behera uzteko eskaera ere.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen botazioaren emaitza: HAMABI (12) boto alde PSE-EE (5), EAJ-PNV (4), EA (1) eta PP (2) alderdietako zinegotzienak, eta BI (2) abstentzio, EB-IU alderdiko zinegotzienak.



Eta 10:05etan, batzarra amaiturik, nik, jarduneko idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bileran eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.